



LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1. Egitasmoaren izenburua:

TIPI-TAPA ZALDIEK LAGUNDUTAKO TERAPIA ZENTROA

2. Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2022

3. Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- II. Kap.: Ekintzailtzarako laguntzak.
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. Proiektuaren helburua:

TIPI-TAPA zaldiek lagundutako terapia zentroaren azpiegiturak eraikitzea.

5. Inbertsio totala: 400.305,25 euro

6. Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 133.145,07 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7. Onuraduna:

TERAPIA TIPI-TAPA SL

- Publikoa
- Pribatua

8. Lankide edo entitate partehartzaileak:

Bat ere ez

9. Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Errotaiega auzoa, Gordexola, Bizkaia.

10. Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

TIPI-TAPA zaldiak erabiltzen dituen terapia-zentroa da, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea nabarmen hobetzen duen ingurune natural batean. Era berean, animalien ongizatea eta ingurumenaren zaintza sustatzen ditu.

Zaldiek lagundutako terapia pazienteak helburu duen jarduera terapeutikoen multzoa da, zaldiak erabiliz, animaliek nabarmen laguntzen baitute pertsonen garapen globalean (alderdi fisikoa eta psikikoa, ezagutza, emozioak eta gizarte-harremanak). TIPI-TAPARI dagokionez, zerbitzu terapeutikoa izateaz gain, naturaz blaitutako aparteko ingurune batean dago, eta, horregatik, terapia-saioak atsedene- eta lasaitasun-giroan egiten dira, bai pazienteentzat, bai familientzat.

TIPI-TAPA proiektu berritzailea da; izan ere, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta haien familiei, ez besterik, eskaintzen die zerbitzu terapeutikoa, eta zaldiak erabiliz, terapia lagunduaren onura guztiak jorratzen ditu pertsonen esparru biologikoa, psikologikoa eta gizarte-harremanetakoa hobetzeko. Gainera, banako arreta pertsonalizatua eskaintzen du, bai eta tratu profesionala, hurbilekoa eta familia girokoa ere. Instalazioak irisgarriak, osoak eta erosoak dira.

Bestalde, ekintzailtza sustatzen du jendez husten ari den landa-ingurunean, non proposamen berritzaileak eskasak diren eta emakume gazteek lanbide-aukera urriak dituzten. Hala, landa-eremuan, lanpostu berritzaileak eta kalitatezkoak sortzen ditu.

Ondoko alderdi berritzaileak ere nabarmendu behar ditugu:

- Terapian laguntzen duten zaldien bizimoduak animalien ongizatea du helburu: 9 hektareako lursailaz goza dezakete, erdi-aske eta taldean bizi daitezke, eta, batez ere, belarrez eta belar lehorrez elikatzen dira.
- Garapen Jasangarriaren Helburuak kontuan hartu dira proiektuaren diseinuan, garapenean eta abioan, iraunkortasunaren ikuspegia aintzat hartuta.
- Ingurune guztiz natural batean dago, Bilbotik 20 bat minutura.
- Ingurumen-eragina murrizteko neurriak hartzen dituen proiektua da (eguzki-plakak, biomasako berokuntza-sistema, euri-uraren biltzea, ur gris bereizketa eta tratamendu biologikoa, eraikinen orientazioa argi naturalaren aprobetxamendu hobea ahalbidetzeko, hondakinak egoki kudeatzeko modu ematen duen simaurtegia...).
- Proiektuak balio erantsia ematen die jarduera garatzen deneko lursailei, larreei eutsi eta baso-eremua espezie autoktonoak erabiliz oihanberrituko baita.

11. Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

TIPI-TAPAk balioa ematen dio Enkarterri eskualdeari eta Gordexolako haranari, zerbitzu berritzailea eskaintzen duelako, beste leku batzuetako pertsonak erakartzen dituelako eta lehen sektoreko (tokiko produktuen salmenta) edo zerbitzuen sektoreko (osasuna, jarduera fisikoa, saltokiak eta tokiko turismoa) eragileekiko harremanetan jartzen dituelako.

Gainera, TIPI-TAPAk Gordexolako haraneko eta inguruko jarduera ekonomikoa dinamizatzen laguntzen du, lehen sektoreko zerbitzuak kontratatuz: abeltzaintzako itxiturak, larreak mantentzea, bazka erostea, albaitaritza-zerbitzuak kontratatzea edo nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak eskuratzea.